

Ziberaktibismoa parte-hartze sozialerako modu berri legez ageri da Euskadiko gazteen artean

Euskadiko gazteen % 21 ziberaktibismoan dabil

Gazteen Euskal Behatokiak, joan den urriaren 22an, *Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin* ikerketaren emaitza nagusiak aurkeztu zituen. Ikerketa hau Euskadiko Gazteen Kontseiluaren (EGK) laguntzarekin burutu zen.

Euskadiko gazteen % 21ek dio azken urtean eztabaidaren bat piztu edo salaketaren bat egin duela interneten, sare sozialetan edo WhatsApp bezalako mugikorrenzako aplikazioetan, bai mezu bat idatziz edo irudi edo bideo baten bitartez, hau da, ziberaktibismoa jotzen du.

Gainera, % 32,1k dio, eztabaida edo salaketa berak piztu ez arren, horren alde agertu dela (bertuteatuz, mezuak, irudiak edo bideoak berbidaliz, profileko argazkia aldatuz...), edota horri buruzko iritzia eman duela bitarteko hauetako batean (sare sozialak, WhatsApp, blogak...).


Ikasketa-mailak, politikarekiko interesak edo asoziazionismoak dute eragin handiena interneteko eztabaida eta salaketetan parte-hartzean.

Goi-mailako ikasketak bukatu dituztenen edo egiten ari direnen artean salaketak edo eztabaidak sustatu dutenen portzentajea % 23,8koa, maila apalagoko ikasketak dituztenen % 14,9ren aldean.

Politikan interesa duten gazteen % 29,7k hartu du parte interneteko eztabaida edo salaketaren batean, politikan interesik ez duten gazteen % 12,7ren aldean.

Asoziatutako gazteek asoziatu gabekoek baino gehiago hartu dute parte interneteko eztabaidak edo salaketak sustatzen (% 24,4 eta % 16,5, hurrenez hurren).

Ziberaktibismoan dabiltzan gazteak, politikarekiko interesaren eta ikasketa mailaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Jarrai gaitzazu sare sozialetan!

